irunkirol
www.irun.org / irunkirol

IRTEERA - SALIDA
Kultura eta Kirola
Cultura y Deportes
-3 ENE. 2020
Nº 45 ZK.

Ayuntamiento Udala
KULTURA ETA KIROL ARLOA ÁREA DE CULTURA Y DEPORTES
irun
www.irun.org

**2019SUCU0033**

*Udal honen Alkate Jaunak 2019ko abenduak 30 an 1712 zenbakiko ebazpen hau eman du, behar bezela sinatu eta zigilaturik, dependentzia hauetan dagoena. Horrela esaten du:*

*Por el Sr. Alcalde-Presidente de este Ayuntamiento ha sido dictada la siguiente resolución n.º 1712, de fecha 30 de diciembre de 2019, que, convenientemente firmada y sellada, obra en estas dependencias. Dice así:*

**"Gaia: 2019an Bidasoa Atletiko Taldeari lokala kirolean aritzeko egokitzeko izendun dirulaguntza bat emateko eta berau likidatzeko** espedientea

**"En relación con:** el expediente relativo a **concesión de subvención nominativa al Club Bidasoa Atletiko Taldea, año 2019 con destino a la adecuación de local para la práctica deportiva, y su liquidación.**

**Argudioak**

- 2019ko urriaren 4an egindako osoko bilkuran, 2019ko aurrekontu luzatuaren barruan Bidasoa Atletiko Taldeari lokala kirolean aritzeko egokitzeko 32.000,00 euroko izendun dirulaguntza bat ematea erabaki zuen Udalbatzak, AD-5621/2019 kontabilitate agiriaren kontura [aurrekontu aplikazioa: 1.0520.781.01.342.10.2019 (16172); kreditu aldaketa: 12/2019].

- 2019ko abenduaren 2an, Bidasoa Atletiko Taldeak lokala egokitzeko lanak egin izana egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu zuen Udal Erregistroan (zk.: 37.611), dirulaguntza kobratzeko.

**Considerando los siguientes argumentos:**

- Que el Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el 4 de octubre de 2019, adoptó acuerdo por el que se incorporada al presupuesto prorrogado de 2019 una subvención nominativa a favor del Club Bidasoa Atletiko Taldea, con destino a la adecuación de local para la práctica deportiva, por un importe de 32.000,00 euros, con cargo al documento contable AD-5621/2019, aplicación presupuestaria 1.0520.781.01.342.10.2019 (16172) - modificación de créditos nº 12/2019-.

- Que Bidasoa Atletiko Taldea ha presentado en el Registro Municipal nº 37611, de fecha 2 de diciembre de 2019, documentación acreditativa de la realización de la adecuación de local, para el cobro de la subvención nominativa.

**Argudioak**

- Espedientearen barruko 2019ko abenduaren 5eko txosten teknikoak aipatzen duen dokumentazioa aurkeztu du Bidasoa Atletiko Taldeak.

- Dirulaguntza emateko, honako hauek hartu dira kontuan: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen Arautegia, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia; Irungo Udalaren dirulaguntzen udal ordenantza; eta Irungo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa. Era berean, kontuan hartu da elkarteak bete egiten dituela onuradun izateko baldintzak dirulaguntzak jasotzeko ondorioetarako eta, bereziki, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak.

- Horrenbestez, kontuan hartuta 2019ko aurrekontu luzatuaren barruan badagoela dagokion aurrekontu aplikazioa (12/2019 zenbakiko kreditu aldaketa), kontuan izanik diruz laguntzen den jardueraren balorazioa, espedientearen barruko txostena dirulaguntza ematearen aldekoa da.

**Considerando los siguientes argumentos:**

- Que Bidasoa Atletiko Taldea ha presentado la documentación recogida en el informe técnico del expediente de fecha 5/12/2019.

- Que la presente subvención se concede de conformidad con la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, del Reglamento de Subvenciones, aprobado por RD 887/2006, de 21 de julio, de la ordenanza municipal de subvenciones del Ayuntamiento de Irun y del Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Irun y que la Sociedad, reúne las condiciones para ser considerado tal a efectos de percepción de subvenciones y, en particular, cumple los requisitos previstos en el art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

- Que, en consecuencia, y teniendo en cuenta tanto la existencia de la correspondiente aplicación presupuestaria en el presupuesto prorrogado de 2019 -modificación de créditos nº 12/2019-, como la valoración del objeto de la subvención, figura en el expediente informe favorable para la concesión de la presente subvención nominativa.

- Onuradunak onuradun izateko baldintzak betetzen ditu dirulaguntzak jasotzeko ondorioetarako, eta, bereziki, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak betetzen ditu.

- Gastua justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu denez gero, aurrez dagozkion izapideak egin eta dirulaguntzaren zenbatekoa ordainketa bakarra eginda ordaintzea proposatzen da.

Frogagiriak, txosten teknikoa eta espedientearen barruko dokumentazioa ikusita, zera

**EBATZI DUT:**

**1. 32.000,00 euroko gastua ONARTZEA, 2019ko aurrekontu luzatuaren barruan (12/2019 zenbakiko kreditu aldaketa) Bidasoa Atletiko Taldeari lokala kirolean aritzeko egokitzeko izendun dirulaguntza bat emateko**

**2. Bidasoa Atletiko Taldeari lokala kirolean aritzeko egokitzeko izendun dirulaguntza bat eman dakion ONARTZEA (12/2019 zenbakiko kreditu aldaketa), AD-5621/2019 kontabilitate agiriaren kontura [aurrekontu aplikazioa: 1.0520.781.01.342.10.2019 (16172)]**

**3. Aipatutako izendun dirulaguntzaren ordainketa AGINTZEA, onuradunak aurkeztu egin dituenez gero zegozkion frogagiriak**

**4. Dirulaguntzaren emaitza Dirulaguntzen Espainiako Datu Basean argitaratzea, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 20. eta 20.8.b) artikuluekin bat etorriz**

**5. Ebazpen hau Bidasoa Atletiko Taldeari eta Udal Kontu Hartzailetzari helaraztea**

**6.- Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Aukeran, berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da beronen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoaren aurretik, hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahalko da ebazpena, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik. Gainera, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahalko da."**

- Que el beneficiario reúne las condiciones para ser considerado tal a efectos de percepción de subvenciones y, en particular, cumple los requisitos previstos en el art. 13 de la Ley 38/2013, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

- Que, como quiera que el gasto se ha justificado documentalmente, se propone el abono del importe de la subvención nominativa en un único pago, previo los trámites oportunos.

Vista la documentación justificativa, informe técnico y documentación obrante en el expediente,

**HE RESUELTO**

**1º.- APROBAR un gasto de 32.000,00 euros, en concepto de subvención nominativa, prevista en el presupuesto prorrogado de 2019 a favor de Bidasoa Atletiko Taldea, con destino a la adecuación de local para la práctica deportiva, modificación de créditos nº 12/2019.**

**2º.- APROBAR la concesión de una subvención nominativa a favor de Bidasoa Atletiko Taldea, con destino a la adecuación de local para la práctica deportiva, -Modificación de créditos nº 12/2019-, con cargo al documento contable AD-5621/2019, aplicación presupuestaria 1.0520.781.01.342.10.2019 (16172).**

**3º.- ORDENAR el abono de la expresada subvención nominativa, al haber sido presentada la correspondiente justificación documental.**

**4º.- Publicar la presente concesión de subvención nominativa en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (SNPS), de acuerdo con el artículo 20 y 20.8 b) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.**

**5º.- Dar traslado de la presente Resolución a Bidasoa Atletiko Taldea y a la Intervención Municipal.**

**6º.- La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno."**

irunkirol
www.irun.org / irunkirol

Ayuntamiento Udala
KULTURA ETA KIROL ARLOA ÁREA DE CULTURA Y DEPORTES
irun
www.irun.org

*Horren berri ematen zaizu jakin dezazun eta beharreko ondorioak izan ditzan.*

*Lo que le comunico para su conocimiento y efectos oportunos.*

Irun, 2020ko urtarrilak 2 a

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA, / EL SECRETARIO ACCIDENTAL,

---

**BIDASOA ATLETIKO TALDEA**
C/ Leandro Agirretxe nº1 - 2º Oficina 8
20304 IRUN